



KIRURGIA/ PROZEDURA INBALITZAILEA ANESTESIA LOKALAREKIN ETA SEDAZIOAREKIN EGITEKO JARRAIBIDEAK

Egingo dizuten ebakuntza kirurgikoa/ prozedura inbalitzailea dela eta, arren, arretaz irakurri ondorengo gomendioak:

- Ospitaleko Harrera Zerbitzuak alde aurretik jakinaraziko dizkizu ospitaleratzearen eta ebakuntzaren eguna eta ordua.
- Ospitaleratu behar zaituztenean, hitzorduaren egun eta orduan joango zara Harrera Zerbitzura (ate nagusia). Ospitaleratze-orria baduzu, ekar ezazu. Horrez gain, NANA eta osasun-txartela ekarri beharko dituzu.

Prozeduraren / Ebakuntzaren egunerako gomendioak:

- Ekarki zure ohiko medikazioak.
- Garbitu behar bezala zeure burua; arrisku gutxiago izango duzu infekziorik izateko.
- Kendu azazkaletako esmaltea, erlojua, bitxiak eta makillajea.
- Hortzordeak edo audifonoa badituzu, ekar itzazu. Komeni da etxeko zapatilak ekartzea.
- Ez ahaztu dokumentazio sanitarioa ekartzea.
- Senitartekoren batekin etorri behar duzu, eta etxerako itzultzeko modua antolatuta izan beharko duzu, zuk ezin izango baituzu gidatu.

Goizez egiten bada:

- Ospitaleratzearen aurreko gauean, afari arin bat hartu ahal izango duzu, gauerdia baino lehen. Ondoren, ura bakarrik har ditzake, ingresoa egin aurreko bi ordura arte.
- **Zure ohiko medikazioari dagokionez:** Goizean, hartu ohiko medikazioa (tentsiorako, bihotzerako, arnasketarako...) urarekin, hutsik egin gabe.

Antikoagulatzaileen/antiagregatzaileen tratamendua hartzen ari bazara (Sintrom®, Pradaxa®, xarelto®, Clopidogrel®...), jarraitu zure medikuaren pautei.

Eta diabetikoa bazara eta intulina jartzen baduzu, ez jarri goiz horretan. Diabeteserako pastillak hartu ohi badituzu, EZ itzazu goiz horretan hartu, eta, metformina duten pastillak hartu ohi badituzu, EZ itzazu ebakuntza baino 24 ordu lehenago hartu. Intulina motel (lantus®, levemir®...) osagarria goizez emanaz gero, dosiaren %70 dosia (ohiko dosia x 0.7=...IU). besterik ez eman. Etxera itzultzean, ekin berriz ohiko tratamenduari.

Arratsaldean egiten bada:

- Gosari arina hartu ahalko duzu, 09:00ak baino lehen. Ondoren, ura bakarrik har ditzake, ingresoa egin aurreko bi ordura arte.
- **Zure ohiko medikazioari dagokionez:** Goizean, hartu ohiko medikazioa (tentsiorako, bihotzerako, arnasketarako...) urarekin, hutsik egin gabe.

Antikoagulatzaileen/antiagregatzaileen tratamendua hartzen ari bazara (Sintrom®, Pradaxa®, xarelto®, Clopidogrel®...), jarraitu zure medikuaren pautei.

Eta diabetikoa bazara, utzi metformina duten diabeteserako pastillak ebakuntza baino 24 ordu lehenago. Bestelako pastillarik hartu ohi baduzu, ez itzazu egun horretan hartu. Intulina motel (lantus®, levemir®...) osagarria goizez emanaz gero, dosiaren %70 dosia (ohiko dosia x 0.7=...IU). besterik ez eman. Etxera itzultzean, ekin berriz ohiko tratamenduari.

HELDUENTZAKO ARAU ESPEZIFIKOAK

- Ebakuntza kirurgikoa baino aste batzuk lehenago zure ohiko egoera aldatzen duen gertakizunen bat jasan baduzu (arnas-infekzioa, azken 2 astetan; ospitaleratzea; ohiko medikazioak aldatzea...), **PROGRAMAZIO KIRURGIKOA-Tfno.: 945 00 76 64, edo prozedura egingo dizun zerbitzuari jakinarazi behar diozu**, zure kasua baloratzen hasteko eta ebakuntza bertan behera utzi behar den erabakitzeko.
- Edozein arrazoiengatik ezin baduzu programatutako egunean ebakuntza egin, Harrera Zerbitzuari jakinarazi beharko diozu.
- Zure segurtasuna dela eta, ezin duzu erre ebakuntza aurreko 30 egunetan.